

## *Jatsu*

Aurkibidea

### **Udalerria: Jatsu**

#### **Sarrera**



Lapurdi Erdialdea eskualdean kokatua. Nafarroa Beherean dagoen izen bereko herritik ezberdintzeko, Jatsu Lapurdi izena erabiltzen da.

Ezpeletako piperraren jatorri izendapen babestuaren eremuan kokatzen da eta oinarri ekonomiko garrantzitsua da berau. Mugerre, Milafranga, Hazparne, Uztaritze, Haltsu eta Larresoro ditu udalerrri mugakideak.

- **Biztanleak:** 1.096
- **Euskaldunak:** %18,1

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

## Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- IKER taldea

## Hizlariak

### **Pantxoa Etxegoin (1960)**



Pantxoa Etxegoin, Jatsun jaio zen 1960an. Haurtzaroa baserrian pasatu zuen, guraso musikazale amorratuekin. Umetatik, inguruko herrietako kantaldi eta jaildietara joaten zen eta bertan piztu zitzaion kulturarekiko grina. Gure Irratia eta Irulegi Irratian eleberriak irakurtzen zituen, itzultzaile-lanak egin ditu hainbat lekutan eta Euskal Kultura Erakundeko -EKE- zuzendaria izan da 24 urtez, 1996tik 2021era. 2021eko azaroan euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak.

### **JAT-002 Hizlari ezezaguna (1938)**

### **Sabina Hontebeyrie Larzabal (1933)**



Jatsun sortu zen Sabina Larzabal. Hontebeyrie izena senarrarekin ezkondu zenean hartu zuen Ipar Euskal Herrian garai horretan egiten zen modura. Ederki ezagutu du XX. mende hasierako Jatsu, jende gehiena laboraria zen orduan.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-05-02*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com